

Balearen begia



Javier Lozano

Ez dakit zergatik, baina txiki-txikitatik sentitu izan dut baleekiko grina. Nire lagunek futbolarien kromoak biltzen zituzten bitartean, nik baleen argazkiak bilatzen nituen nire albumean itsasteko. Behin, etxeko entziklopediatik moztu nituen eta aitaren haserrea ikustekoa izan zen. Atsekabe horrek ez zidan gogoia kendu. Orduak eta orduak ematen nituen albumaren irudiei begira. Irakurtzen eta idazten ikasi nuenean, argazki bakoitzari testu bana gehitu nion eta baleei buruzko informazioa pilatzen hasi nintzen.

Esan dudan moduan, zaila da zerk erakartzen ninduen jakitea. Baliteke baleak animalia horren erraldoiak izatea edo egiten dituzten bidaia harrigarriak. Baina, batez ere, niregandik oso hurbil zeudela sentitzen nuen, antzekoak ginela. Eta frogatzat jotzen nuen haien kanten bidez garatu duten komunikazio sistema konplexua. Aurkitu nuen horri buruzko informazio osoa irakurri nuen, baina eskasa zen, osatu gabekoa eta galderak gehiago ziren erantzunak baino. Baleen kantak doinu egituratuak dira, kexuak, orroak, hasperenak eta garrasiak biltzen dituztenak. Doinu segida hauek 10 minutuko iraupenera heldu daitezke eta zehaztasun osoz errepika ditzakete hainbat aldiz ordu bakoitzeko. Hori guztia agertzen zen liburuetan. Errepikatze horrek harritzen ninduen, nire ustez mezu zehatzak zabaltzen zituztela frogatzen zuelako. Zer edo zer esateko zutela sentitzen nuen eta, are gehiago, niri kontatzeko asmoa zutela. Nik bideari ekin behar nion gogoz, konprenitzen ikasi arte. Bai, ume

kontuak dira, baina nire haurtzaroa indar handiz markatu zutenak.

Balea mota guztiak nituen gogoko. Balea urdinak, inoiz izan den animaliarik handienak, 33 metro luze eta 190 tona izatera iritsi daitekeenak, harritzen ninduen. Etxeko pasilloaren metroak neurtzen nituen eta hiruzpalau bider luzeagoa zela kalkulatu nuen bertatik ibiltzen nintzen bitartean. Balea konkordunaren salto ikusgarriek txunditzen ninduten. Gainean nindoala, zaldi bat izan balitz bezala, imajinatzen nuen, planetaren itsaso guztiak zeharkatuz...

Baina gogokoena, gehien maite nuena, balea grisa zen. Apala, baina ederra. Balea grisak zetazeorik primitiboena dira, antzinakoena, bizirik dirauten bere familiako (*eschrichtidae* familia agertzen zen liburuetan) kide bakarrak. Haien itxura zahar eta bereziak liluratzen ninduen, aspaldiko garaietatik heldutako mezulariak zirela imajinatzen nuelako. Balea grisak ez dira zetazeorik handienak. Baina hori bai, urtero, ugaztun batek egindako migraziorik luzeena burutzen dute. Alaska inguruko itsasoetan ematen dute uda, bertan dagoen *krill* ugariz elikatuz. Udazkenaren hasieran, hotz polarra iristearekin batera, alde egiten dute. Bidaia 10.000 kilometro ingurukoa da. Alaska, Kanada eta AEBtako kostaldetatik oso hurbil igeri eginez, Mexikokoraino heltzen dira, Behe Kaliforniako ur epelagoetan kumeez erditu eta estalaldia bertan emateko. Itsaso haietan, kostalde ondoko aintziretan batez ere, abenduaren amaieratik martxoaren bukaerara bitartean egoten dira. Eta aintzira haien artean, balea gehien biltzen duena da *Ojo de Liebre* izenez ezagutzen dena, *Guerrero Negro* herriaren ondoan

dagoena. Izen horiek, *Ojo de Liebre*, *Guerrero Negro*, magikoak ziruditen eta behin eta berriro idatzi nituen nire koadernoan.

Ojo de Liebre aintzirak sekulako garrantzia izan zuen balea grisek bizirik irauteko jasan behar izan dituzten zailtasunetan. 1.850ean Charles Scamon kapitainak bertara ailegatu zen eta horren berri mendebaleko gizarteetan zabaldu zuen. Garai hartan 25.000 balea gris inguru ziren Amerikako eremuan. Erraz imajina daiteke haien ehiza zer izan zen *Ojo de Liebre* bezalako aintziretan: itsasoarekin bat egiten duen aho estua itxi eta ehunka balea geratzen ziren preso sakonera gutxiko uretan. Zelatan egon, arnasteko ur azalera igo arte. Begiztatu eta sarraskiari ekiten zioten ur gardenak gorritz tindatu arte. XX. mendeko 30eko hamarkadarako ehunen batzuk balea-ale baino ez ziren geratzen. Azkenean, 1.946an, balea grisaren ehiza debekatu zen eta populazioa pixkanaka joan da berreskuratzen.

Urteak aurrera joan ziren nahi baino arinago. Konturatu orduko, haurtzaroa atzean utzi, ikasketak amaitu, lanean hasi, ezkondu... Heldu bihurtu nintzen eta bizitza beste zama bat hartuz joan zen. Dena den, baleekiko zaletasuna mantendu nuen. Fantasia gutxiago eta errealitate gehiagorekin, baina baleazale amorratua izaten jarraitu nuen. Gehiago jakiteak ez zidan asetzen.

Neskak eta biok urteak eman genituen *Ojo de Liebre*-rako bidaia prestatzen. Baldintzak hertsia ziren. Bidaia ez zen merkea eta dirua biltzea lan neketsua izan zen gure soldata urriak kontuan harturik. *Ojo de Liebre* aintziran baleak ikusi ahal izateko otsailean edo martxoan izan behar da. Gure lan-egutegia oso desberdina da eta

konponketa ugari egin behar izan genuen bion oporraldiak data horietan hartzeko. Azkenean, dana lotu genuen eta Behe Kaliforniara abiatu ginen.

Mexiko Hirirainoko bidaiaren inguruan ezer gutxi konta dezaket. Neskari hegaz egiteak sekulako beldurra ematen dio. Izerditan jartzen da, batez ere hegazkina aireratzen edo lurreratzen denean, baina pilula batzuk hartu zituen eta kimikari esker nahiko lasai egin zuen hegalaldi luzea.

Guerrero Negro-ra errepidetatik joatea baztertuta genuen, Mexiko Hiritik 3.000 Km-tik gora egin behar direlako. Hori ikusita, hegazkinez joatea erabakita genuen. Mexiko Hiriko aireportu erraldoira heldu bezain pronto, *Guerrero Negro*ko hegazkin-linea kudeatzen zuen konpainia txikiaren bulegoaren bila abiatu ginen. Noraezean ibili ginen aireportu osotik eta hamaika bider galdetu behar izan genuen bulegoa aurkitu arte.

Leihatilako langileari *Guerrero Negro*rako txartelez galdetu nionean zaplada handi bat nabaritu nuen sorbaldan.

- *Guerrero Negro!* – entzun nion ahots zakar bati kolpearekin batera. Ingeles kutsu handiz eta oihuka egiten zuen eta aireportu osoak entzungo ziola pentsatu nuen-
Guerrero Negro! Friends. I should also go back with the whales!

Horrelako zerbait esan zuen edo, behintzat, hori ulertu nion nik, nire ingelesa oso eskasa delako. 40 urte inguruko gizona zen, argala eta gihartsua. Bizarduna zen eta ile argia oso luze zeraman, aurpegia ia estali arte. Ikusten zitzaizkion aurpegiaren atal bakarrak begiak ziren. Etengabe mugitzen zituen eta txinpartak jaurtitzen

zituztela ematen zuten. Bere arropa oso zaharra eta higatua zen, urratu eta zulo ugari zuena. Sandalia marroiak zeramatzan, loturarik gabe eta oso erabiliak...

Luze hitz egiten jarraitu zuen -oihuak gero eta handiagoak- eta esaldi bakoitzaren amaieran barre-algara izugarriak egiten zituen. Esandakoaren gutxi ulertu nion. Egia esan, hitz solte batzuk - *friends, whales, again...*- baino ez nizkion konprenitu. Noiz behinka bizkarreko bat ematen zidan. Gero besotik heldu eta buelta ematera behartu ninduen, aurrez aurre geratu arte. Orduan besarkatu ninduen indar handiz.

- *My name is Dylan, Dylan Stone* - esan zuen eta gero errepikatu zuen- *Dylan Stone, Dylan Stone...*

Behartuta sentitu nintzen. Bostekoa luzatu, nire izena esan eta gero neska aurkeztu nion.

Zegoeneko hegazkin-txartelak poltsikoan nituen eta kanporantz abiatu ginen. Dylan gure ondoan kokatu eta gurekin batera etorri zen. Ez zen isiltzen. Bere oihu handiak zirela medio, mundu guztia guri begira geratzen zela sentitzen nuen. Gehiena ez ulertu arren, noiz behinka burua mugitzen nuen baiezkoa ematen. Hola heldu ginen aireportuaren kanpoko atera. Gure asmoa zen hotelera lineako autobusez joatea, baina gizon nekagarri hura gainetik kentzearren, taxi bat hartu nuen.

Ez nintzen lasaitu taxiaren barruan egon arte, Dylan espaloian ikusi nuenean, leihatilaren beste aldean. Orduan arnasa sakonki hartu nuen.

- Buff, zelako gogaikarria ! Eskerrak libratu garen ! - esan nion neskari.

- Ez dakit, baina pena ematen dit – erantzun zidan-. Zarataren azpian, tristura handia igartzen zaio. Eta berriro ikusiko dugula antzematen dut.

Hurrengo egunean, ia deskantsatu gabe, *Guerrero Negrora* abiatu ginen. Ez zegoen hegaldi zuzenik. Aurreikusita genuena zen lineako hegazkin bat hartzea *Hermosilloraino* eta bertako aireportuan, 4 orduko geldialdiaren ondoren, txikiago bat *Guerrero Negrora*ko.

Mexiko Hiriko aireportura berriro heldu ginenetik adia egon nintzen ea Dylan agertzen zen. Ez nuen inon ikusi eta, hegazkina aireratu zenean, ez genuela berriro topatuko pentsatu nuen.

Hermosillon astia izan genuen bueltatxo bat hiritik emateko eta arratsaldeko bostak inguruan aireportura itzuli ginen. Itxaron-gela txiki batera eramán gintuzten *Guerrero Negrora*ko hegazkinaren zain geratzeko.

Gelatxora sartu eta ikusi nuen edo berak ikusi ninduen, nor zen konturatu baino lehen bere oihuak entzun eta bizkarreko handi samarra sentitu nuelako.

- *Friends, friends, Guerrero Negro, back to Guerrero Negro.*

Dylan zen, jakina. Ez nuen ulertu zelan heldu zen *Hermosilloraino* gure hegazkina hartu gabe, baina bera zen inolako zalantzarik gabe.

Besoa pasa zidan lepoaren gainetik eta beste besoarekin gauza bera egin zuen neskarekin. Ez zegoen ihesbiderik. Aurreko egunean bezala, oihuka egiten zuen isildu gabe eta noizbehinka barre-algara zaratatsuak botatzen zituen. Hamar bat lagun geunden gelatxo hartan eta guri begira gainerako guztiak barre txikiak egiten

zituztela nabaritu nuen. Duintasuna mantentzen saiatu nintzen, baina egoerak ez ninduen asko laguntzen. Honela egon ginen hegazkina hartzeko agindua eman ziguten arte.

Hegazkina oso txikia zen, hamar bat eserlekukoa. Dylan jesarri zen gure ondoan eta inoiz baino gehiago eta gorago hitz egiten zuen. Oso urduri zegoela pentsatu nuen. Betiko leloarekin jarraitzen zuen eta bere sermoiaren barruan *-Friends, whales, again, back...-* nik ulertzen nituen hitz apurrak. Sarritan errepikatzen zuen *is the time, is the time*.

Hegazkina txikia izatearen gain, zaharra ere bazen eta kanpoko zein barruko metalak herdoilduta zituen. Pistatik abiatu zenean aireratzeko, atera zuen latorri-hotsa izugarria izan zen. Eta burrunbaren gainetik, Dylanen ahotsa.

Lurretik nahiko hurbil egin genuen hegaz. Ohikoa da altuera horietan haizeak gogorago jotzea eta hegazkina zaldi ero baten antzera mugitzen zen. Gu lasaitzen saiatu zen azafata, dana ondo zihoala errepikatu zuen behin eta berriro. Ez dakit bere helburua lortu zuen, baina eskatu zion arren, ezin izan zuen Dylan isilarazi.

Hodei batzuk gora behera, zerua garbi zegoen eta paisaia zoragarria zen. *Cortez* itsasoaren ur berdeak, harkaitzezko irlaz ziprztindurik; kontinentearen basamortu hori eta okreak; eta kolore guztien intentsitate aldaketak arratsaren argiaren arabera... Bere etengabeko bakarrizketa entzuten nuen arren, Dylan nire ondoan zihoala ia ahaztu nuen leihatilatik begira.

Bidaiak pare bat ordu iraun zuen, azafata, oreka gordetzeko zailtasunei aurre eginez, altxatu zen arte:

-Arratsalde on, jaun-andreok –esan zuen mikrofonotik. Guregandik metro eskas batera egon arren, iskanbila zela-eta, mikrofonoa erabili behar izan zuen-. Minutu gutxi barru *Guerrero Negro*ko nazioarteko aireportuan lurreratuko gara. Eskerrik asko gu aukeratu izanagatik.

*Guerrero Negro*ko nazioarteko aireportua: basamortuko lautada zabal baten erdian asfaltatu gabeko pista bat, terminalaren eraikin bakarra, txabolatxo bat, lastozko teilatua zuena. Horren barruan bizpahiru soldadu mexikar eta beste dozena bat kanpoan, gure zain. Guztiak bibotedunak eta haien tripak, larruzko gerrikoetatik gainezka, beraien fusiltzarren neurrikoak.

Oso denbora gutxian, motxilak jaso, tramite guztiak bete eta agur esan ziguten erarik atseginenean. Eta hori gutxi izanik, taxiak ate ondoan zeuden, hortik kilometro batzuetara zegoen *Guerrero Negro*ra gu eramateko prest. Bidaiariak bi taxitan banatu ginen eta ez dizuet esan beharrik Dylan gurean etorri zela.

Guerrero Negro herria bost kilometro inguruko kale luze-luze bat baino ez zen. Etxeak, pisu bakarrekoak gehienak, alboetan altxatzen ziren, alde bakoitzeko lerro bana osatuz. Harantzago, basamortua eta haize boladek harrotzen zuten hauts zuriaren hodei trinkoak. Motxilak bizkar gainean hartu eta hortik abiatu ginen ostatu baten bila. Eta Dylan gure ondoan, isildu gabe.

Ostatu merke bat hartu genuen. Harrerako neskarekin hitz egiten genuen bitartean, Dylan desagertu zen. Ez dakit zer egin zuen, baina bat-batean begiratu nuen eta ez zegoen gurekin.

Ekipajea desegin eta baleen txangoa kontratatzen atera ginen. Dylanen beldur ginen. Ez genuen gurekin etortzea nahi, falta zitzaiguna zen egun zoragarria izan behar zuena, bere gehiegizko hitz-jario eta zaratarekin hondatzea. Toki guztietara begira egon ginen eta Dylan ez zen inondik ageri. Baleen inguruan turismo enpresa batzuk zeuden herrian bertan, aintzirako bisitak antolatzen zituztenak. Haietako batean zerbitzua kontratatu genuen eta hotelera bueltatu ginen, Dylanen aztarnarik topatu gabe.

Gaua zen eta Behe Kaliforniako basamortuan hotz handia egiten zuen. Ohean etzanda, estufa piztuta gure ondoan, hurrengo eguneko plana komentatu genuen:

- Orain bai, Dylan betiko galdu dugu- esan nion neskari. Berak begiratu zidan, baina ez zuen ezer esan.-
Balea grisak lasai ikusi nahi ditut, bihar errealitateak ordezkatzeko ditut betiko argazkiak eta nire buruari galdetzen diot ea zer sentituko dudan. Ziur nago ez dudala inoiz ahaztuko.

Neskak informazio liburuxka bat atera zuen. Bertan biltzen zen *Guerrero Negro* herriaren historia eta *Ojo de Liebre* aintziraren hainbat gorabehera.

- Begira, hemen dago Charles Scammon kapitainaren argazki bat -esan zidan.



Charles Scammon (1825-1911)

Liburuxkaren argazkiari erreparatu nion. Charles Scammon uniformez jantzita zegoen. Kapitainarena zela imajinatu nuen. Ile argia, bizarra eta, bereizgarriena, bekokia oso zabala, holakoa zuelako edo ilea galtzen hasia zelako. Ezpainak zimurtzen zituen, irribarrea zelakoan agian, eta begiak erdi itxita zituen argi batek joko bazion bezala.

- Begira zer kontatzen duten -jarraitu zuen neskak liburuxka zela-eta - Charles Scammon heldu zen *Ojo de Liebre* aintzirara 1857ko abenduan. Baleak ehizatu zituen, oso denbora gutxian bere itsasontziaren sotoak guztiz bete arte. Hurrengo urtean etorri zen berriro beste itsasontzi batzuen laguntzaz eta 200 baleetatik gora hil

zituzten. Eta bost urte geroago baleen ehiza utzi behar izan zituzten *Ojo de Liebren*, bale oso gutxi zegoelako. Triskantza izugarria izan zen.

- Morroi bitxia Charles Scammon kapitaina -esan nuen nik-. Naturazalea zen eta baleei buruz asko zekien. Baleen eta itsasoko ugaztunen inguruko liburu bat argitaratu zuen. Ziur nago baleak maite zituela, baina ehunka hil zituen. Zaila da ulertzea, maitasuna eta heriotza eskutik helduta joatea.

- Utzi biharko filosofia merke hori – erantzun zidan neskak.

Arrazoia zuen. Buelta eman eta lo egiteko prestatu nintzen.

Goizean goiz, ohetik altxatu eta turismo agentziara abiatu ginen. Bulegora heldu, eta atean 40 inguruko gizon bat zegoen, bizarduna eta aurpegia ia guztiz estaliraino ile luzea zeramana. Pontxo zahar bat zuen jantzita eguna hotza zelako, baina Dylan zen zalantzarik gabe. Gure harridurako ez zen oihuka hasi. Keinu bat egin zigun burua zertxobait altxatuz, baina isil-isilik jarraitu zuen.

- Hauxe da Dylan -esan zigun agentziaren arduradunak-, zuekin joango den laguna. Gaurkorako ez daukagu irteera gehiagorik eta pentsatu dugu elkarrekin eramatea. Ondo moldatuko zarete.

Jeep batean eraman gintuzten *Ojo de Liebrerantz*. Herri osoa zeharkatu eta gatzagen instalazioak ikusi ahal izan genituen. Munduko gatzagarik handienak omen ziren eta herriko jende gehienak bertan egiten zuen lan. Dylan gure ondoan zettorren, baina mutu jarraitzen zuen. Begiak bai, beti bezala mugitzen zitzaizkion eta ohiko sua zerien.

Gero, kosta ondoko dunetan barrena abiatu ginen eta hainbat kilometro bertatik egin ondoren, aintziraren ertzer ailegatu ginen. Zerua lainotuta zegoen, hotz handia egiten zuen eta haizeak nahiko gogor jotzen zuen. Gure zain arrantzale bat zegoen bere txalupatxoarekin.

Aintziran barrena abiatu ginen. Arrantzaleak lema zeraman eta motorra kontrolatzen zuen. Neska eta biok elkarren ondoan eserita gindoazen hitz bat edo beste noiz behinka elkarri trukatu. Dylan gure aurrean zihoan, begirada galduta eta ezpainak zabaldu gabe. Goizeko ordu haietan ez zegoen txalupa gehiagorik. Buien gainean foka taldeak ikusten ziren garrasika eta nork bere tokia gorde nahian. Geroxeago, gatzez beteriko itsasontzi batzuk pasa ziren. Hotza gero eta handiagoa zen, haizeak bortizki jotzen zuen. Aurrera eta aurrera, eta baleen aztarnarik ez. Aintziran gu ginen izaki bizidun bakarrak, txaluparen motor hotsa baino ez zen entzuten. Zegoeneko aintziraren ahotik oso gertu geunden eta, azkenean, arrantzalea zutitu eta besoa altxatuz puntu batera begiratzeko esan zigun. Hara hor ur-zorrotadak!

Balea talde batengana abiatu ginen, ondoan kokatu eta arrantzaleak motorra amatatu zuen. Hasierako inpresioa izugarria izan zen. Baleak guregandik oso hurbil zeuden. Larruazalaren urradurak eta epidermisari lotutako lanpernak argi ikusten zitzaizkien. Txaluparen inguruan mugitzen ziren. Uretan murgiltzeko, gorputza uzkurto, bizkarra kakotu, eta buruz behera abiatzen ziren itsasoaren hondora. Batzuetan kolpeak ematen zituzten hegatsez ur azalean. Ni harrিতuta nengoen baleei begira eta aitortu behar dut inguruko lagunekin ahaztu nintzela eta ezin dudala esan zertan ibili ziren une haietan.

Balea bat txaluparekin jolasean hasi zen beste animalia bat zelakoan, jolaskide bat topatu nahian, agian. Behin eta berriro pasa zen txaluparen azpian, gilatik oso hurbil. Bat-batean gelditu zen, burua uretatik atera eta guri begira jarri zen arreta handiz. Balearen begi erraldoia bi metro eskasera ikusteak beldurtu ninduen. Orduan bai, lagunak begiratu nituen, ikara guztion aurpegietan, baina Dylanenak izua baino gehiago islatzen zuen, harrizko bihurtu zela ematen zuen.

Balea guri begira segundo batzuk egongo zen, baina amaiezinak izan ziren. Gero atzeko hegatsa uraren kontra gogor astintzen hasi zen. Altxatutako olatuak sartu ziren txalupara.

-Eraso abisua! -oihu egin zuen arrantzaleak- Alde egin behar dugu! Arin!

Txaluparen motorra piztu eta azeleragailuaren palankari heldu zion, baina balea, gure kontra jo beharrean, hasi zen aldentzen. Eta horrekin batera kantatzeari ekin zion. Kanta laburra zen. Nik esango nuke oso tristea zela eta bere baitan deia eta kexua biltzen zituela. Alde egiten zuen bitartean, behin eta berriro errepikatzen zuen kanta hori.

Arrantzalea ez zen lasaitu:

- Goazen! Lehorrera heldu behar gara ahalik eta arinen! -lema zuzendu eta motorrak ematen zuen potentzia osoarekin kostalderantz abitu zen.

Elkarri begira geratu ginen, txalupa saltoka zihoan eta heldu behar izan genion karelari ez jausteko.

Hasieran ur-zorrotadak ikusi genituen. Asko ziren eta norabide guztietatik zetozen, gero eta gertuago, gero eta

gertuago. Hurrengoak haien kanta entzutea izan zen. Guztiek kanta bera errepikatzen zuten, kanta triste eta labur hura, begiratu zigun baleak egin zuena. Ondoren baleen gorputzak ikusi genituen igerian. Zaila da zenbat ziren kalkulatzeko, ehunka, mila inguru, agian. Alde guztietatik hurbiltzen ziren eta momentu batean bidea moztu ziguten eta preso geratu ginen baleen gorputzez osatutako hesien artean. Balea batzuek atzeko hegatsa uraren kontra astintzen zuten. Bagenekien, erasotzeko prest.

Arrantzaleak ez zuen beste erremediorik izan, eta baleen kontra talka ez egitearren, txaluparen motorra amatatu zuen. Hor geratu ginen geldi, olatuen gainetik kulunka, baleez inguraturik. Arrantzalea ikusi nuen belauniko, eskuak aurpegiaren aurrean bata bestearen kontra luzatuta otoiz egiten. Azkenera helduak ginela pentsatu nuen. Neskari eskua heldu nion eta saiatu nintzen bera izan zela nire bizitzaren onena esaten, baina eztarria itxita nuen eta ez zitzaidan ahotsik atera. Dylan guztiz erotu zen. Karelaren gainean igo zen eta zutik, besoak gurutze moduan zabalik, burua altxatuta, infinituari begira zegoela pentsatu nuen. Haizeak ile luzea harrotzen zion. Nik atzetik ikusten nuen eta ezin dut segurtatu zerbait esaten zuen ala ez. Balea bat oso gertu zegoen eta bere begi handia tinkatuta zuen Dylanengan. Bat-batean, Dylanek pauso labur batzuk eman zituen, dantza bitxi batean hasi izan balitz bezala. Gero hankak kakotu, uretara indar handiz egin zuen salto eta itsasoren ur hotzetan murgildu zen. Ez genuen gehiago ikusi. Ezkutuko agindu bat bete izan bazuten bezala, une hartan balea

guztiak lasaitzen hasi, pixkanaka aldenduz joan ziren eta libre utzi gintuzten.

Erreskate-taldeek *Ojo de Liebre* osoa arakatu zuten arren, Dylanen gorpua ez zen inoiz agertu, ez aintziran ezta ondoko hondartzetan ere. Betiko desagertu zen.

Hamar urte pasa dira hau guztia gertatu zenetik eta egunero-egunero errepikatu da mila bider irudi bera nire buruan: Dylan zutik karelaren gainean, haizeak ilea atzerantz eramaten zion, balearen begia bere aurrean metro gutxira... Balearen begian aurpegia oso garbi islatzen zen, harrotutako ileak estaltzen ez zuelako. Ezin izan dut ahaztu aurpegi hori, eta ez dut uste bizitza osoan ahaztuko dudarik: bizar laburra, bekoki zabala, ezpainak zimurtuta irribarre baten itxuraz, begiak erdi itxita... Bai, inolako zalantzarik gabe, balearen begian islatzen zen aurpegia Charles Scammon kapitainarena zen.